

ALOR LEXIKOA ETA HITZ FAMILIAK

1.-Markatu hitz-familia bereko hitzak:

- Basozainak basapiztia aurkitu eta basetxera eraman zuen.
- Suhiltzaileek uharteko sumendiak sortutako sutea itzali zuten.
- Itsasertzean genbiltzala, itsasontzi bat ikusi genuen itsasargira hurbiltzen.

2.-Bete esaldi hauetako hutsuneak laukiko hitzak erabiliz.

urtegi	eskutitz	jaki	basozain	sugar
jatordu	pasahitz	basajaun	sukalde	ur

- Hotel honetan, _____ bakoitzean _____ asko dago aukeratzeko.
- _____ basoa zaintzen duena da, eta _____ aldiz, mitologiako jeinua.
- _____ zahar hartako tximiniak _____ -en kea xurgatzen zuen.
- Zuk uste baino _____ kantitate handiagoa har dezake _____ batek.
- _____ hori irakurtzeko, _____ zein den asmatu beharko duzu.

3.-Irakurri elkarrizketa eta egin aukera zuzena kasu bakoitzean, gaia kontuan izanik.

Laminerari elkarrizketa

—Lamine, zu senegaldarra zara. Esango zenidake Euskal Herriko zer kirol dituzun gustukoen?

—Ba, egia esan, **esku-pilota/golfa** eta **tenisa/sokatira** izugarri gustatzen zaizkit.

—Eta, sukaldaritzari dagokionez, hemengo zer janari iruditzen zaizu tentagarriena?

—Jatun ona naiz, eta **marmitakoa/espagetiak** eta **mamia/tiramisua** dira.
gustukoen ditudan janariak.

—Eta, euskal musika-tresnen artean, zein aipatuko zenuke?

—Badaude zenbait instrumentu Afrikakoen oso antzeko soinua dutenak, eta
horiek asko maite ditut: **txistua/harpa** eta **bateria/txalaparta**.

—Eskerrik asko, Lamine!